

GOBERNU BATZARRA

2017.10. 23

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urriaren hogeita hiruan, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria	
Nerea Letamendia Belloso	
Jokin Azkue Arrastoa	1.- Aurreko akta onartzea.
Iñigo Alonso Sarasibar	2.- Langunea 2016-17 hainbat aldaketak.
Beh. Beh. idazkaria:	3.-“Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua”-n jasotako obren 4. ziurtagiria (1284/17/CMSL eta 1285/17/CMSL fakturak.
Karmele Contreras Goikoetxea	
Kontuhartzaitza:	4.-lurramendi Egoitzak aurkeztutako 16-17/2017 zka.duten faktura zerrendak.
Ainhoa Molinos Zubiaurre	5.-Ingurune irekiko Gizarte eta Heziketa esku-hartze zerbitzuaren kontratazioa.
	6.- Jangela sozialeko hobariaren eskaera.
	7.-Amarozko 2016ko dirulaguntzaren kitapena.
	8.-2017/1860 Alkate Dekretuaren kontu ematea.
	9.-55/2017 zk.a duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko urriaren 9an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Langunea 2016-17 hainbat aldaketak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2016ko

ekainaren 15ean egindako bilkuran (2016ko ekainaren 16an argitaratu zen EHAOn). Tolosako Udalak, 342.960,23 euroko programa bat aurkeztu zuen. 2016eko abuztuaren 22an, Tolosako Udalak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren Ebazpena jaso zuen. Ebazpenaren bidez Tolosako Udalarik 342.960,23 euroko diru-laguntza eman zitzaion.

Ildo horretatik, Gobernu batzarraren bitartez onartu zen ondorengo enpresei diru-laguntza

ematea hainbat kontratuentzat. Azken dokumentazioa aurkeztu ondoren ikusi da kontratuen benetako ezaugarriak eta aurreikusitakoak desberdinak direla

Aipatutakoa kontuan izanik eta Enplegu Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hasieran emandako laguntza aldatzea, kontratu bakoitzaren benetako ezaugarrietan eta kostean oinarriturik, honako taula honen arabera:

Enpresa	Kopurua	Iraupena	Lanaldia	Langilea	Hasierako Dirulaguntza	Kostu erreala	Behin betiko dirulaguntza	Zioa*
Ados Lencería	1	6 hilabete	osoa	M.A.A.	9.000,00 €	10.851,12 €	6.000,00 €	1
Begiristain sagardotegua	1	6 hilabete	osoa	M.J.A.L.	9.000,00 €	12.024,43 €	6.000,00 €	1
Garaikoetxea Txakolindegia	1	127egun	osoa	J.E.I	6.000,00 €	8.155,78 €	4.120,88 €	2
Saizar	1	85 egun	osoa	G.I.A.	6.000,00 €	3.966,86 €	2.802,20 €	3
Talleres Ibarra	1	86 egun	Osoa	J.A.R.O.	2.835,16 €	6.062,48 €	0,00 €	4
Nagore Azuabarrena	1	91 egun	osoa	N.A.A.	6.000,00 €	4.284,78 €	3.000,00 €	5

Zioa*	
1	programa doitzea
2	kontratuaren aldia murriztea
3	laneko hobekuntzaren ondorioz langileak berak baja eskatzea
4	kontratazioaren gutxieneko aldia ez betetzea

BIGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Ados Lencería, Begiristain sagardotegia, Garaikoetxea Txakolindegia, Reparación de Maquinaria Saizar, Talleres Ibarra eta Nagore Azuabarrena enpresei eta Kontuhartzailtza Sailari.

3.-"Nafarroa Etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren 4. ziurtagiria (1284/17/CMSL eta 1285/17/CMSL fakturak.

Tolosako Udalak Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitu zion "Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obren kontratua, 988.664,20 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dirá, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

<i>Ziurtagiri zenbakia</i>	<i>Faktura zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>
1. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	792/17/CMSL.....	41.943,82 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	793/17/CMSL.....	5.948,06 €
2. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	901/17/CMSL.....	58.423,39 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe).....	902/17/CMSL.....	12.273,36 €
3. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	1065/17/CMSL.....	116.629,34 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	902/17/CMSL.....	18.318,82 €
GUZTIRA		253.536,79 €

Orain obrako 4. ziurtagiria aurkeztu da, honakoa da:

<i>Ziurtagiri zenbakia</i>	<i>Faktura zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>
4. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	1284/17/CMSL.....	118.375,75 €
4. ziurtagiria (BEZik gabe).....	1284/17/CMSL.....	41.40712 €
GUZTIRA		222.782,87€

Kopuru horretan honako kontzeptuak sartuak daude, Gizpuzkoako Urak enpresari eta Tolargiri dagozkionak (1285/17/CMSL faktura):

- * Ur zikinak eta ur-hornidura34.043,40 €
- * Argindarra.....7,363,72 €

Ziurtagiria hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- "Nafarroa etorbideko Irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"-n jasotako obran 4. ziurtagiria onartzea: Zenbatekoa 222.782,87 € -koa.

BIGARRENA.- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri honetan sartuak dauden ondorengo kopuruak eskatzea dagozkien enpresei.

. Ur zikinak eta ur-hornidura (Gipuzkoako Urak)..... 34,043,40 €
. Argindarra (Tolargi)..... 7,363,72 €

HIRUGARRENA.- Fakturen ordainketa egitea.

LAUGARRENA.- Erabakia honen berri ematea adjudikaziodunari, Construcciones Moyua, S.L. enpresari, Gipuzkoako Urak eta Tolargi enpreseei eta Kontuhartzaitzari.

4.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 16-17/2017 zka.duten faktura zerrendak.

lurreamendi egoitzak **16/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **50.101,85** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **16/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

.....

lurreamendi egoitzak **17/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **234.944,29** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako **17/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta lurreamendi Egoitzari.

5.- Ingurune irekiko Gizarte eta Heziketa esku-hartze zerbitzuaren kontratazioa.

Tolosako Udala "Ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartze" zerbitzua ematen ari da.

Udalak Nura elkartearekin izenpetutako kontratua 2018ko urtarrilaren 13an bukatzen dela eta, aipatzen den zerbitzua herriaren interes orokorren aldekoa dela kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Kontratazio guastua eta kontratua arautzen duten baldintza administratibo eta teknikoak onartzea.

BIGARRENA.- Prozedura irekiaren bidezko esleitze tramitazioari hasiera ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuei.

6.- Jangela sozialeko hobariaren eskaera.

A.F.Ak aurkeztu duen jangela sozialeko hobariaren eskaera ikusita eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea A.F.A.k aurkeztu duen eskaera.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesatuari, Kontuhartzaile eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuei.

7.-Amarozko 2016ko dirulaguntzaren kitapena.

Ikusita Tolosako Udalak Amaroazko Auzo Elkartearekin 2016ko otsailaren 1ean sinatutako hitzarmena eta Gobernu Batzarrek 2016ko apirilaren 11n hartutako erabakia, Amaroazko Auzo Elkarteari 2016ko auzoan antolatzen dituzten aktibitatek sortutako gastuei aurre egiteko 26.757 €-ko dirulaguntza ematea erabaki zuela.

Kontuan izanik Amaroazko Auzo Elkarteak 2016ko otsailaren 26an aurreratik modura, 13.378€ jaso zituela urte guztiko aktibitateek sortutako gastuei aurre egiteko eta aurtengo irailaren 8an Elkarteak aurkeztu dituen antolakuntzen balantzeak eta gastu agiriak ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Amarozko Auzo Elkarteak 2016ko bigarren sehilabeteko aktibitateak antolatzeak sortutako gatuari aurre egiteko 9.108,12€-ko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Amarozko Auzo Elkarteari eta Kontuhartzaitza departamentuari.

8.- 2017/1860 Alkate Dekretuaren kontu ematea.

2017ko uztailaren 19an, **2017/1361** Dekretua egin zen, baimena emateko 1977ko kintoen bazkaria Zerkausian antolatzeko.

2017ko urriaren 17an, **2017/1860** Dekretua eman zen, aurreko dekretu horri zuzenketa bat egiteko eta puntu bat gehitzeko, kontuan izanik Ordenantza Fiskalek Zerkausia erabiltzeagatik sortutako gastuari buruz diotena. Hain zuzen ere, puntu horrek honela dio:

“ BOSGARRENA.- Ekimen honentzako baimena eta Zerkausiaren erabilerari dagokion tasa ordaindu beharrik ez izatea onesten dituen dekretu hau sinazen dut, gobernu batorderen eskumenekoa izan arren, ekimena gauzatzeko epea dela eta, organo honen baimena garaiz eman ahal izateko ezinagatik. Gobernu batzordearen hurrengo bileran emango da baimen honen berri”.

Gobernu Batzarreko kideek azalpena entzun dute eta jakinaren gainean geratu dira.

9.- 55-/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **55/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **190.338,60** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **55/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA